

Etorkizuneko idazleak Lasarte-Orian

Lasarte-Oriako Literatur Lehiaketan ipuin eta poesia onenak saritu dira

Lasarte-Oriako XXIII. Literatur Lehiaketako zein Haur eta Gazteen XII. Literatur Lehiaketako sariak banatu ziren larunbat eguerdian Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Urduritasuna eta beroa nabaria zen hitzaldi aretoan, Jone Altuna, Iñaki Mugica eta Martin Moreno zinegotziek banatu zituzten sariak. Sari banaketarekin hasi aurretik, musika eskolako kideek poesia musikatu eskaini zuten.

Haur eta gazteen sariak

Azpiamarragarria da, herri honetan haur eta gaztekoek idazteko duten trebetasuna.

Lehiaketara 600 bat lan aurkeztu dira. Horietaik euskaraz idatzitakoak ia 300 izan dira eta gaztelaniaz, aldiz, 236. Beraz, epaimahaiak zail izan du aruten erabakia hartzeko.

Hala ere, adostasun batera iritsi eta hurrengo gaztetxoak izan dira aurtengo irabazleak.

2000. urtean edo ondoren jaiotakoan artean, hau da bederatzirteko behar

arte, euskarazko 81 ipuin aurkeztu dira eta lehen hiru sariak, Julen Urruzolaren, *Gazteluko hiru anaiak*, Nahia Arrutiren, *Mundua eta Naiara* eta Xuar Agirrerren, *Hiru koloreak* ipuinek jaso dituzte. Poesian, ez zen lanik aurkeztu.

1997, 1998 eta 1999 urteetan jaiotakoan arteko mailan euskarazko 169 ipuin aurkeztu dira eta sarituak Beñat Urruzolaren *Uda bat Alkizan*, Ane Galardiren, *Txuria eta Beltza koloreen herria* eta Leire Chorrorren, *Erregeei gutuna* izan dira. Poesian lan bat aurkeztu da eta lehen saria jaso zuen Asier Zubizarretak, *Maitasuna* lanarengatik.

1994, 1995 eta 1996 urteetan jaiotakoek euskarazko 27 ipuin aurkeztu dituzte eta lehen saria Amaia Mendiluze Redondok jaso zuen, *Zergatik?* izan da. Poesian, bigarren saria Leire Amianok, *Kandara* lanarengatik eta hirugarrena Maider Galardik, *Gerrateko argia* ipuinarengatik. Maila honetan ere ez zen lanik aurkeztu.



Hitzaldi aretoa bete egin zen XXIII. Literatur Lehiaketako sari banaketan.

Gaztelaniaz, berriz, 2000 urte artekoen mailan lan bakarra aurkeztu zen eta epaimahaiak saririk ez ematea erabaki zuen.

1997, 1998 edo 1999 urteetan jaiotakoan mailan, 152 ipuinen artean, Leire Chorrorren *Abeto y sus historias*, María Pérezren *Los calcetines mágicos* eta Sara Pavoren *Cuando se separaron algunas partes de la pangea* saritu ziren. Poesian lan bakarra aurkeztu zen eta epaimahaiak ez zuen saririk esleitu.

1994, 1995 edo 1996 urteetan jaiotakoan artean gaztelaniazko 60 ipuinen artean, Amaia Mendiluzeren *El diario de ella*, Andoni Amonarraizen

El árbol mágico eta Martin Ansoren *Luciana* aukeratu ditu epai-mahaiak lehen hiru sarietarako.

Poesian 22 lan aurkeztu dira eta epaimahaiak lehen saria Itziar Múgicari eman zion, *Colorín colorado* lanarengatik.

Helduen Literatur Lehiaketa

Helduen XIII. Literatur Lehiaketan herriko autoreek ez dute ia idatzi eta, ondorioz, maila ikusirik, Lasarte-Oria saririk ez da esleitu.

Oro har ere, lan oso gutxi aurkeztu dira euskaraz eta epaimahaiak, euskarazko ipuinaren ataleko saria emateko moduko lanik ikusi ez

duenez, saririk ez ematea erabaki du.

Poesia atalean, aldiz, Etxarri-Aranatz herriko Jon Etxabe Garitazelaia idazlearen *Otamendi erloju mekanikaz* sorkuntak jaso du saria.

Gaztelaniazko sariketari dagokionez, Estatuko hainbat tokititik heldutako 83 ipuinek hartu dute parte eta Zaragozako Carlos Mateos López idazlearen *Espesojos* ipuinak jaso du saria.

Era berean, gaztelaniazko 23 poesia lan aurkeztu dira eta guztien artean Madril-eko Torrejón de la Calzada herriko Vicente Martín-en *Que mar os contaría* lana saritzea erabaki du epaimahaiak. •



Abenduaren 3a,
Urritasuna duten
pertsonek eguna:
Patxi Fadrique eta
Jalgune elkarteak /2-3

KULTURA /6

Oinatz taldearen
diaporaman,
aurreko
ikasturteko
irteerak ikusgai



Haur eta gazteek
aisiaz gozatzeko,
Euskarazko
produktuen
katalogoa /4-5



- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



Patxi Fadrique Kirolaria

“Gurpildun aulkian joatea eta kirola praktikatzea ez daude kontrajarriak”

Ixaso MORENO

Abenduaren 3an urritasuna duten pertsonen eguna da. Bere egunerokotasunean jasan behar dituzten trabetaz kontzientziatzeko eta hobetzeko garaia da. Lasarte-Oriako Udala pixkanaka traba arkitonikoak ezabatzen ari bada ere, oraindik badira urritasuna duten pertsona ugari jasaten dituzten zailtasun eta oztopoak. Patxi Fadrique lasarteoriatarrekin egon gara traba hauek mintzatzeko eta bera maitatzen duen kirol munduaz hitz egiteko.

Lasarte-Oriako herri batean, zelako trabak aurkitu ditzake ezindu batek?

Gure herria ez dago batera ondo egituratuta. Kaleak ez daude prestatuak, ezta apartaketeo lekuak ere. Araudiak dio dau-

den 40 aparkalekuengatik 1 ezinduentzako bideratua egon behar duela. Hemen Lasarte-Orian ez daude, eta daudenak, gaizki eginak dira.

Gaizki zergatik?

Adibidez, herriko aparkaleku asko gurpildun aulkitan goazentzako ezinezkoak dira. Kotxea utzi bai, baina gero ezin bertatik atera espazio ezagatik. Txikiak, edota estuak dira. Askotan ere, zu atera behar zaren aldeko atetik poste bat edo zuhaitz bat aurkitzen duzu.

Egun ikusten ditugun zebra bideekin zer moduz?

Zebra bideetan, ura pasatzeko kanal bat uzten dute, eta azkenean, kriston espaloia geratzen da... Batzuk oso gaizki daude.

Zu oso kirol zalea zara, baina ez duzu herrian praktikatzen, zergatik ez duzu herriko kiroldegia erabiltzen?

Ez dut inoiz erabili. Behin joan nintzen galdetzera eta bertako instalazioak, ordutegiak... ez zitzauden ondo zeuden iruditu, eta ez naiz berriro bueltatu.

Azkenean, nire herritik kanpo kirola praktikatzera behartu naute, Donostiako txartela atera dut eta bertako kiroldegietan ibiltzen naiz.

Erreza al da kirol egokitua jorratzen duten taldeak aurkitzea?

Hemen, Gipuzkoan, Kernen taldea dago. Lasarteko kroasean parte hartzen duten gehienak bertatik datoz. Elbarrituen elkarte bat da, kirola egiteko; atletismoa, eskia, submarinismoa...

Gipuzkoako federazioak ere eskola ezberdinak antolatzen ditu elbarrituen pertsonak praktikara ditzaten. Usurbilen adibidez, guk pala egiten dugu, frontoian, Usurbilgo pilota taldeak antolatzen du; Bera-Berak saskibaloia du aukerarik, nire lau urte damazkit bertan, amateur moduan.

Baina Gasteizen Zuzenak taldeak adibidez, beste maila batean jolasten du. Gainera, saskibaloiaz aparte, tenisa, badminton... eskaintzen dute.

Zuk kirol ezberdinak praktikatzen dituzu; saskibaloia, pilota... baina ba al duzu kirolen bat gogoko eta praktikatu ezina?

Bai, bela. Probatu dut. Bost eguneko ikastaro batean aritu nintzen, baina egia da, gure inguruan ez daudela guretzako ondo prestatuak.

Donostian adibidez, kaira iristeko eskailerak dituzte. Gainera, itsasontziak ez daude prestatuak. Guk erabiltzeko ontzi bereziak ekarri beharko lituzkete.

Erreza al da kirol egokitua praktikatzea, edo diru aldetik garestia da?

Dirua suposatzen du. Ni adibidez, leku batetik bestera ibiltzen naiz, eta horrek gasolina aldetik kriston dirutza suposatzen dit.

Gainera, kirola egiteko aulki berezia erosi behar duzu, eta momentu hauetan begira nagoela, oso garestiak iruditu zaizkit, 3.000 euro inguru. Horregatik, federazioetik ahaletzen egiten ari gara aulkia erosteko eta behar dutenei uzteko.

Zu oso inplikatu zaude kirol egokituan, ezta?

Bai, aipatu dudana bezala kirola asko gustatzen zait, asko praktikatzen ditut.

Orain gainera, federazioan sartuta nago. Laguntza behar zutelara esan zidaten, eta abenturan sartu nintzen.

Ze gauzak egiten dira federazioan?

Bilerak, erabakiak, proiektuak...

Egun Donostian Kontxa inguruan egingo den kirol gunearen proiektuekin gaude, kiroldegia, aldagelak, igerilekuak, gimnasia egiteko makinak... dena egokitua egongo da.

Baina ez da guretzako soilik izango, jende guztiak disfrutatu ahal izango du. Ez da elbarrituentzako leku itxia izango.

Proiektua jada martxan da, eta 2011rako egina egongo dela suposatzen da, Europa aldean lehenetarikoa izango delarik.

Zer esango zenioke istripu bat izan duenari, gurpildun aulkian geratu dena, eta hemendik aurrera kirola praktikatu ezingo duela uste duenari?

Kirola egiteko aukera badagoela, gero eta gehiago gainera. Batzutan zuk egin nahi duzun kirola ez dago aukeran, baina gero eta gehiago ateratzen ari dira eta asko ugartzen gainera, bilatu egin beharra dago.

Baina nola hasi behar dira?

Norbaitek probatu nahi badu federazioaren bitartez ere jarri daitezke kontaktuan. Bertan ere, esango diete igeriketa non egiten den... ze kirol mota dauden eta non. Federazioari deitu dezakete edo <http://www.fgdpm.com/> web atarian duzue informazioa.

Azken finean, beldurrik ez izatea, gerturatzea, bertan kirola nola egiten den ikustea eta probatzea!! Aukerak egon badaudela!!



Bela praktikatzea gustatuko litzaioke Patxi Fadrique lasarteoriatarri, baina momentuz beste kiroletan dihardu.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

‘Gazte hauek existitu, ahotsa eta gaitasuna dutela erakustea da gure nahia’

■ Jalgune elkartearen jaialdiaren hirugarren edizioa ospatu zuen kultur etxean larunbatean

TXINTXARRI

Urritasunaren eguna hurbiltzen dela eta, Jalgune Elkartek bere jaialdiaren hirugarren edizioa antolatu du asteburu honetan Manuel Lekuona Kultur Etxean. Jalgune duela 18 urte jaio zen Lasarte-Orian eta harez geroztik dihardu minusbaliotasuna duten pertsonen arteko harremana sustatzen, baina nola? Zer da Jalgune? Eta ze konpromezu dute elkarteak kideak?

Euria barra-barra erori da Jalgune Elkartek herrian lanean hasi zenetik.

2011an 20 urte beteko ditu, bi hamarkada gure artean, eta betiko helburu berdinarekin pertsonen “sorkuntza, sozialitatea, espresibitatea eta autonomia pertsonala bultzatzen duten aisialdi oinarritzea,” adierazi digute.

Lasarte-Oriako tribua

18 urte dira jada lanean hasi zirela eta afrikako atsozitate bategiaren bezala “persona bat hezteko tribu guztia behar da” eta hau dute abiapuntu nagusia.

Tribuari laguntza eskatzen diote prozesu hau gauzatzen jarraitzeko, eta kasu honetan, “Lasarte-Oria da gure tribua” diote.

Aisian, pertsonen arteko hartu emanetan gozatzen dela

diote elkartetik, “zenbat eta pertsona gehiagorekin interakzionatzeko aukera izan, aisiaiz gozatzeko eta pertsonen nola bizi erabakitzeak aukera gehiago”.

Herritar arruntak

18 urtez lanean “gure gazteak existitzen direla, ahotsa eta gaitasunak dituzela erakustarazteko”.

Danborradan parte hartzea, Santa Ana parodian, erregeen kabalagan eta aurtun, lehenengo aldiz, herriko inauterietako konpartsan helburuak lortzeko bidea ireki die, “izugarria izan zen, gure barrenak ederki astindu ziren, berrehun pertsona baino gehiagorekin talde baten partaide ginen.”

Ekintzetan denak berdín

Ekintza ugari antolatzen dira Jalgunetik “herritarrek gure ekintzetara hurbiltzean saiatzen gara, eta guk antolatu ez ditugun beste ekintzetan ere parte hartzen”.

Aurtun laugarren urtez dardo txapelketa antolatu dute Also tabernaren laguntzarekin “guretzat definitiboa izan da, izan ere, 30 gazte inguru biltzen gara elkarrekin arratsalde pasa”.

Amankomuneko interesgune honetan “bakoitzak bere gaitasun eta ezaugarriekin, urtean zeharreko harremanak sortuz”.



Larunbatean ospatu zuten jaialdian, guztira 100 lagun inguru igo ziren oholtzara.

Kuadrila eta bidaiak

Gazte hauek, gainerako koadrila batek bezala sentitu eta disfrutatzen dute, eta horren adierazle “igandero biltzen dira arratsalde pasa herriko beste edozein kuadrila bezala”.

Jalgune minusbaliotasuna duten pertsonen aisialdi mota ezberdinak eskaintzen dizkio.

Horrela, elkarte sortu zenean, urtean behin aste osoko bidaiak egiten zituzten, orain aldiz, urtean hirutan egiten dituzte irteerak, baina asteburukoak, “Euskal Herria ezagutzeko helburuarekin”.

Egun ere astean zehar ekintzak bultzatzen dituzten, integratzerako eta normalkun-

tzarako bide egokiak ezarri.

Udalaren lana

Orain dela gutxi, udaletxean Down gazte bat kontratu zuten. “Albistea ikaragarri poztu zituen gazteak, eta nola ez begiraleak” aipatzen dute Jalgunetik.

Kontratazio hauen helburua errealitatea herrira hurbiltzea da, “gazte hori gureak bezain jatorria baldin bada enbaxadore bikaina izango dugu”.

Azken egunetan, gainera, herriko espaloietan lanean ikusi ditugu operarioak, traba arkitektonikoak saiezteko nahiarekin.

“Asko poztu gara, ez bakarrik gurgildun aukian doazen pertsonengatik, erosketak egin eta karrua gauzaz bete dituztenengatik, haurren aukietan joaten direnengatik ere”. Jalguneko elkartearen ez dago gurgildun aukian doan kiderik “baina askotxo izango dira horren etekin positiboa aterako dutena”.

Normaltasuna da bidea

Lasarte-Oriako herritarren beharra dute Jalgunetik, horregatik “kaletik ikusten gaitzuenearan gurena hurbiltzeko eta agurtzeko” deia luzatzen dute “bertan hasiko bailitzake harremana”.



Jaialdiko momenturik hunkigarriena, eskerrak emateko begiraleek elkarte kideei agurra dantzatu zienekoa izan zen.

Jaialdi zoragarria bezain hunkigarria larunbatekoa

Larunbatean arratsaldeko 18:30ean ospatu zen Jalguneko antolatutako jaialdiaren 3. edizioa. Bertan, 100 lagunetik gora bildu ziren oholtzara gainean, eta izkutuan laguntzen beste 15 inguru ibili ziren. Oholtzan Senblante Andaluz elkarteak abesbatza rozieroa, Ttakuneko batukada, Ostadarreko neskak eta beste hainbat ikusi ahal izan ziren.

Aurtengo jaialdia ametsetan oinarritu da, Jalguneko kideek dituzten ametsak egi bihurtzen saiatu ziren iratxo baten laguntzaz.

Eskerrak Jalguneko kideei

Honetaz aparte, elkarte sortu zenetik orain arte pasa diren

begirale gehienak batzea lortu zuen jaialdiak, eta begirale hauek izan ziren Jalguneko kideei beraiei eskerrak eman nahi izan zietenak. Lehen aipatutako iratxo horrek eman zizkien eskerrak ahoz, eta esandakoak askori malkoak isuri arazi zizkien. Baina honetaz gain, begiraleek oholtzara gainean agurra dantzatu zieten elkarte kideei.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi diete jaialdia aurrera ateratzen lagundu duten guztiei eta urtean zehar elkarlanean aritzen diren hainbat ere: Ostadar, Also taberna, Sta Ana parodia, Semblante Andaluz, udala...



www.katalogoa.org plazerrezko produktuen ataria

Durango Azoka egunotan zabalik, eguberriak ate jola... Urteroko hitzordiarako baliagarria izango zaigun euskal produktuen katalogoa kalean da jada. Papereko edizioko 9.000 ate banatu dituzte Buntintzalean. Baina noiznahi kontsultatu liteke gida, www.katalogoa.org web orrialdean. Eguneratu, itxuraz berriro eta edukiz indartu dute euskal produktuei eskainitako ataria.

Burua hausten demora gaitza salhesteko erremedioa eskuean duzu. Euskal Herriko berrehundik gora udalek euskarazko produktuen katalogoa argitaratu dute. Beran dituzte bildua merkaturan dau-dun disko, liburu, joko, jostibatu, aldizkari eta beste hainbat produktuen erreferentziak. Produktu berriak asko, eta interesgarriak denak, 16 urte bitarteko haur eta gazte txoket alisaldiz gozatzeko. Euskal Herri osoan zehar 240.000 ale banatu dira egunotan.

Orain paperean eta noiz-nahi sarean

Papereko edizioak bereziki orain izango du bere balioa. Durango Euskal Liburu eta Disko Azokara donanentzat poltsikoan produktuen gida eraman eta errazago aukeruko dituzte, kalitateko eta euskarazko jolas edota aldizkariak. Bestela, laster bisitatu gaitu. Oinezkoak ere, lezaki-nahi helarazi nahi diren eskar-tur zerranda egiten ari diren zentzuz lagungarri suaria-tuko zate gida.

Eguberriak, igarota ordea, urtean zehar, izaten da beste atzika mordoan opariren bat egiteko; urtebetzetan dirida, detailatxo bat egiteko arar-dotzako... Paperekoak bere iraungitze data izan ohi du, euskal produktuen katalogo web orria eguneratzen joango da.

Bospasei produktu berrie-zaio ageri di; frudi bat, pre-zio orientagarria, edota lan zintzilikatuko dituzte, berri orria sartu eta erabil-tzaileak berehalakoan ikus dituzte web orria eta eskaintza eguneratuko da. Hauxe, aurtengo herrikuntza nagusia.

Argibaleteen parte hartza
Web orrialde berriro, elkara-naren emaitza izan bada pre-takuntza fasean zurean zurean ere kudeatuko larekin gauza bera gertatu-lo da. Pasahitz baten bidex,



Liburuak, filmak, aldizkariak, jolas eta jostibatuak... Produktu sorta zabala bitzen du aurtengo katalogo berriak, atxialda euskarazko primeran pasatzen.

euskal produktuak plazara-tzeaz adurazten diren argita-letxeek katalogoko edizio digitalen dituzten produktu berrien informazioa zintzifika-tu ahal izango dute, eta har-tara, euskal produktuen katalogo web orria egune-razten joango da.

Bospasei produktu berrie-zaio ageri di; frudi bat, pre-zio orientagarria, edota lan zintzilikatuko dituzte, berri orria sartu eta erabil-tzaileak berehalakoan ikus dituzte web orria eta eskaintza eguneratuko da. Hauxe, aurtengo herrikuntza nagusia.

Argibaleteen parte hartza
Web orrialde berriro, elkara-naren emaitza izan bada pre-takuntza fasean zurean zurean ere kudeatuko larekin gauza bera gertatu-lo da. Pasahitz baten bidex,

Katalogoari lotutako web orrialde berri-tuak iruzkinak egiteko aukera ematen du

baganda erostera animatu, gauden lekutik mugitu ere egin gabe.

Gustuko dugun produk-tuan klikatu eta zuzenean, bere argibaleteko web orria-lean sartuko gara, erosketa egiteko.

Modu tradizionala nahigo duenak, diru-zorroa patritan sartu eta noberre herriko libu-ru dendaran batera joan liteke. Salokira sartu baino lehen denda banan euskal produk-turik salzen ere duten jakin ahal izango du. Egitasmo honetako eragileek iragarri dituzte, "hemen euskarazko produktuko salgai" dionen pegatunak banatzeko asmoa dute. Produktua eros eta ezar-gutia, noberre par liteke orde-nagailu pantailaren aurrean eta euskal produktua epaitu; gustukoa ote duen, zergatik iruditzen zaiton gomendaga-ria... Guztia web orrialdeit-atera ere egin gabe. *

Gustukoa, gomendatu

Liburu, jostibatu edo beselako- bitzailentzat. Adin tartea, prezioa, egilea, produktuen izena, produktu mota... modu askotara egin dezake-zu bilketa.

Produktu bakoitzaren ondoan oinarritzko informazio ageri di; frudi bat, pre-zio orientagarria, edota lan zintzilikatuko dituzte, berri orria sartu eta erabil-tzaileak berehalakoan ikus dituzte web orria eta eskaintza eguneratuko da. Hauxe, aurtengo herrikuntza nagusia.

Argibaleteen parte hartza
Web orrialde berriro, elkara-naren emaitza izan bada pre-takuntza fasean zurean zurean ere kudeatuko larekin gauza bera gertatu-lo da. Pasahitz baten bidex,

Oinatz-en irteeretako irudiak Jalgin

■ Bortzirietara, Aranora eta Valderejora egindako irteeretako diaporama emango dute
 ■ Toki hauetako paisaia eta ohiturak erakutsiko dituzte asteazkenean 21:30ean Jalgin

TXINTXARRI

Aste honetan Jalgin eskainiko den diaporama emanaldia seietatik bereziena izango da: ez da urrutira egindako bidaiarik ezagutaraziko, Oinatz taldekoek aurten, Bortzirietara, Aranora eta Valderejora egindako irteerak erakutsi eta kontatuko dituzte.

Oinatz taldeko Josu Agirretxe eta Jaione Iriondok azaldu digutenez, ondo dago oporretara Txinara, Keniara edo Argentinara joatea, "Oinatz taldeko kideak ere joaten dira, baina bertakoa ikustea ere gustatzen zaigu; eta ez bakarrik ikustea, ikastea ere bai. Batzutan ikusi bai baina ez duzu ikasten eta Oinatz helburua biak uztartzea da".

Ondare handia

Oinatzek antolatzen dituen irteeren helburua toki berriak ikusi eta bertako ohiturak ezagutaraztea da. Eurek diotenez, "sarri zeharkaldiak egin eta inguruko hainbat istorio ez ditugu ezagutzen. Han bertan aldamenen dira gauza oso interesgarriak, baina aurretik lantzen ez badira ez dituzte jakingo eta toki denetan daude gauza interesgarriak. Ondare handia dugu Euskal Herrian".

Aurten egin dituzten irteerako hiru kontatuko dituzte datorren asteazkeneko diaporaman. Bata Bortzirietara egindakoa, beraz, Etxalar, Lesaka eta San Juan Xar-eko irudiak emango dituzte, bestea neguan elurretan Aranora egin zutena inguruko harrespilak ikusteko eta hirugarrena bi egunerako

egin zuten irteera: Valderejo, Nerbioiren jaiotza, Gesaltza eta Orduña erakutsiko dituzte. Emanaldian, hainbat argazki eskainiko dituzte eta bertako ohiturak kontatu.

Historia eta bitxikeriak

Oinatz taldearen asmoa aldiro bisitatzeko tokien erreferentzia historikoak, ezaugarri bereziak, bitxikeriak eta xehe-tasunak ezagutaraztea da eta horiek ezagutzen dituen norbaiten azalpenak izaten dira beti. "Ikusi eta ikasi" Oinatzekoek dioten bezala. Orain diaporamen emanaldian parte hartuko dute helburu garbi batekin: ikustera joaten direnei gure ingurua eta ohiturak ezagutaraztea, hain juxtu Oinatzek irteerak antolatzean duen xede berbera da. Bestek beste, Etxalarren usategien funtzionamendua, kokapena eta historia, Aranon harrespilak eta Valderejoan, otsoak harrapatze-ko lekuak ezagutu zituzten.

Otsailaren 1ean, elurrari aurre eginez 41 lagun joan ziren Aranora, bertako harrespilak bisitatu eta babarrunak jatera. Pirinio osoan ez da Arano eta Goizueta artean beste trikuharri, mairu-baratze eta harrespila; bi kilometrotan 59 daude.

Martxoaren 29an Etxalarreko usategiak, San Juan Xarreko ermita, pago-lizarren basoa eta iturria, eta Lesakako herria ezagutu zituzten. Usopak sarek ehitatzeko ohiturari eutsi diote mendez mende Etxalaren XV. mendetik. Oinatzeko kideek kuku entzun zuten usategiak ikusten ari zirela.



Oinatzeko kideek Etxalarrean egin zuten irteeran usoak sarek ehitatzeko ohitura zaharra ezagutu zuten.



Oinatzeko talde bat Araba aldean.

Ekainaren 6 eta 7an bi eguneroko irteera egin zuten Oinatzekoek Gaubea aldean.

Asteburu pasa honetan Valderejoko parke naturaleko zenbait toki paregabe, Nerbioi

ibaiaren jaiotza, Gesaltzako Gatzaga eta Orduña ezagutu zituzten. Irteera honetan ere izan zuten bitxikeriak ezagutzeko aukerarik, esaterako igande goizean artzainek otsoak harrapatzeko erabiltzen zituzten zuloak ikusi ahal izan zituzten eta arratsaldean garai batean aduana izan zuen Orduña herriko etxe eta berezitasunak: Bizkaiko herrixka da, Arabako lurraldean dago eta Gaztelarekin mugan.

Azaroan hasi zuen Oinatzek ikasturte berria, hilaren 8an egin dute lehenengo irteera Donibane Garazira eta hurrengo Gasteizera izango da. Lauzpabost egiten dituzten urtero. •

Defensores erakusketaren hasiera eta Sofia Moro egilearen hitzaldia bihar

Bere bizitza arriskuan jarri eta giza eskubideen alde borroka egiten duten 30 pertsonen argazkiak ikusgai egongo dira Manuel Lekuona Kultur etxe-ko erakusketa aretoan bihartik aurrera.

Udalak eta *Amnistia Internacional* erakundeak Lasarte-Oriara ekarri duten *Defensores* erakusketa da.

Honetan, Sofia Moro argazkilaria bere herrietan giza eskubideen urraketak salatzen dituzten edo behar-tsun edo ezezagunen eskubideen alde egiten duten hainbat aktibista, hala nola,

abokatu, kazetari edo nekazari erretatua egin die, haien istorioa jakitera emateko.

Erakusketa astean zehar, 18:00etatik 21:00etara egongo da ikusgai eta abenduaren 18a arte egongo da bertan.

Hitzaldia

Erakusketarekin batera, Sofia Moro argazkilaria hitzaldia eskainiko du bihar arratsaldeko 19:30ean kultur etxe-ko hitzaldi aretoan.

Argazkilaria giza eskubideen babesle hauen eta erakusketaren berri emango du honetan. •



Inkiszio garaian emakumeek pairatutako salatze-ko Akelarre bat antzeztu zuten.

Antzezlana ederra Zentro Zibikoko emakumeena

Genero indarkeriaren aurkako eguneko ospakizunekin bukatzeko, ostiralean, Emakumeen Zentro Zibikoko antzerki taldeak *2009 Odisea dónde sea* lana antzeztu zuen Manuel Lekuona Kultur etxean. Antzezlana honetan esketz ezberdinak antzeztu zituzten: inkiszio garaian emakumeek jasan zutena salatze-ko Akelarrea irudikatu zuten; emakume batek bere senar ohiarekin izandako ametsa kontatu zuten; Ravelen boleroaren doinuekin batera, emakumeek adinarekin izaten dituzten gora beherak azaldu zituzten. •

Egunero

Erakusketa

SAHARAK EMAKUME IZENA DU argazki erakusketa Mundu bat GKEren eskutik. Jalgin.

Erakusketa

Amnistia Internacional erakundearen DEFENSORES erakusketa inaugurazioa. Kulturetxean, 12:00etan.

Astearte, 1

Inaugurazioa

Amnistia Internacional erakundearen DEFENSORES erakusketa inaugurazioa. Manuel Lekuona kulturetxean, 12:00etan.

Hitzaldia

SOFÍA MORO, Defensores erakusketa egilearen hitzaldia. Kulturetxean, 19:30etan.

Asteazkena, 2

Hitzaldia

ATEZ ATEKOA: EGIAK ETA GEZURRAK izeneko hitzaldia eskainiko dute Jon Kortajarenak, Oiartzungo Teknikariak eta Jordi Colomer, San Markoseko aholkulariak Xabier Andonegi



Dennis Hopperren *Easy Rider* ostegunean

EASY RIDER filma Okendo Zinema Taldearen eskutik

Motorren gaineko road movie honetan, Los Angeleseko bi gazteen bidai lagun izango gera, hauek kokaina saldu ondorengo lortutako diruarekin. Izaera oso desberdineko pertsonaia ezagutuko ditugu. Eta beraien ametsen parte izango gara, betirako haize bihurtuz.

OSTEGUNEAN, HILAREN 3A
KULTURETXEAN
SARRERA, 4,15 EURO

moderatzaile dutela. Lasarte-Oria Bizirik taldeak antolatuta. Kulturetxean, 19:00etan.

Diaporama

LESAKARA ETA IKASTURTEAN ZEHAZ EGINIKO IRTEERA kulturalei buruz arituko dira Oinatz taldeko kideak. Jalgi kafe-antzo-kian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Osteguna, 3

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren Ipuinaren ordua saioa 7, 8, eta 9 urteko haurrentzat. Haurrak bakarrik egongo dira. Kulturetxean, 18:00etan. EUSKARAZ.

Larunbata, 5

Kontzertua

SUSTRAI TABERNAREN LEHENENGO URTEURRENA ospatzeko *Aurka* eta *Despervicio* taldeek emandaldia eskainiko dute. Sustrai tabernan, 19:00etan.

Osteguna, 10

Diaporama

ARGENTINARI buruz arituko da Alex Tetuan. Jalgi kafe-antzo-kian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzetez, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Multimusikalari laguntzeko bonoak

Multimusikalari laguntzeko antolatzaileek bonoak jarri dituzte salgai tabernetan. Bi bono mota daude, Koadrilentzako 50 euro balio dute eta norbanakoak 20 euro. Errifak ere aterako dituzten, herriko jateke batean bi pertsonentzako afaria zozketatuz.

Honetaz gain kontu korronte honetan ere dirua sartu dezake nahi duenak: 2101 0048 20 0125573386. Animatu zaitzetez Multimusikalari aurrera ateratzen!

Errasquetaren aurkako elkarretaraztea

Emandako hitza errespetatu. Atez atekoa orain! Lemapean

elkarretaraztea antolatu du Lasarte-Oria Bizirik taldeak abenduaren 4rako, arratsaldeko 19:00etan udaletxearen aurrean.

EHNArekin arazoak izan badituzu

EHNArekin arazorik izan badituzu edo/eta informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri zaitzetez posta elektronikoa honetan lasarte@baieuskalherriari.org. Ez izan dudarik eta bidali mezua lasai asko!

Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix eta Sustrai tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren euskal karabana antolatzen laguntzeko bideratuko da.

Beltzak Rugby taldeko loteria salgai

Beltzak Rugby taldeak gabonetako loteria salgai jarri du.

Zozketatuko den saskia ikusteko eta loteriako boletoak eskuratzeko aukera Jalai tabernan izango duzue. Rugby taldeko kideek ere izango dituzte boletoak saltzeko, beraz, edo Jalai tabernan, edota rugbyko kide bati eskatu zure boletoa. Loteriari esker lortzen den diru guztia Beltzak Rugby eskolarentzako izango da.

Burunzpe Guraso elkartearen Loteria

Sasoeta- Zumaburu herri ikastetxeko Burunzpe Guraso Elkarteak salgai dauka dagoeneko Gabonetako loteria. Eskuratzeko elkartetik pasa daiteke asteazkenetan 15:00etatik 16:30etara.

Oztabideko loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztaraneko auzotarrei jakin arazten die eguberriko loteria salgai dagoela. 19827 zenbakia da eta 3 euroko (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteriako partaidetzan eska-

tzeko aukera izango duzue. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta COVIRAN supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzte.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administrazio gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukala elkarteak.

Zakurra galdu da

Pastor aleman bat galdu da Zabaleta auzoko Hernani bidean. Dei du izena eta txipa dauka. Aurkitzen duenak dei dezala, 943 365 297.

Haur baten zapata azaldu da

Urriaren 25ean ospatu zen Lasarte-Oria Bai! Kroseko egunean, haur txiki baten zapata marroia azaldu zen Jalgi kafe-antzo-kian. 3-6 hilabeteko haurrentzako zapata da. Galdu duenak Ttakuneko bulegoan jaso dezake.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri T X I N T X A R R I aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com



Txalparta txiki bat jaso zuen Jon Lasak oroigarri Mª Jose Eizmendi, Ttakuneko lehendakariaren eskutik.

Merezitako saria jaso zuen Jon Lasak

■ Ttakun Sarien lehenengo edizioa ospatu zen larunbat iluntzean Txintxardin Beltxa jatetxean

"Aspaldian genbiltzan Ttakun Sarien jaialdia burutik kendu ezinik, eta aurrean gauzatzea erabaki dugu" esan zuen Mª Jose Eizmendik, Ttakuneko lehendakariak Jon Lasari saria ematerakoan. Eta zergatik eman dioten Jon Lasari ere argitu zuen, "Jon beti egon da herrian antolatuta diren ekitaldi eta festa guztietan euskal kultura zabalduz, haur eta gazte inguratuta; eskatu zaion guztietan beti egon da prest laguntzeko eta lehenengo edizio honetako saria berari ematea pentsatu genuen".

Ekitaldia Txintxardin Beltxa jatetxean ospatu zen larunbat iluntzean, eta afafoste girotua antolatuta zuen Ttakunek. Eki-

taldia aurkezten Martin Anso eta Intza Alkain aritu ziren. Aitor Atxegari eman zioten sarrera lehendabizi. Aitorrek abesti bat zuen prestatuta Joni eskaintzeko, eta abestia entzuten zuten bitartean Jonen argazkiak proiektatu ziren.

Ondoren Mª Jose Eizmendik, Ttakuneko lehendakariak saria eman Joni. Jonek gustura hartu zuela saria aipatu zuen, baina ez zela berea bakarrik, han bertan zeuden guztiena zela, eta denei eskaintzen ziela. Jarraian Aitzolek eta Aroak, Jonen seme-alabek, Mikel Laboaren abesti bat abestu zioten aitari. Halako batean, ezustean, Txintxarriko

bi banatzaile berezi agertu ziren eta bertaratutakoei Txintxarrien ale berezi bat eman zieten, barre algarata batzuk sorraraziz, era berean.

Jonen ikasle izan diren hainbat gazte ere pieza batzuk eskaini zioten trikiritaxarekin eta ondoren Landaberri Antzerki Eskolaren klown saioa ikusi ahal izan zuten.

Amaitzeko Zigor Iriondo eta Ane Labakak Joni hainbat bertso eskaini ondoren, dantzaldira gonbitea egin zieten bertaratutakoei.

Festa asko bezala, larunbatetako ere dantzan eta jai giroan amaitu zen Atxega, Iparragirre, San Jose eta Iker Telleria musikarien laguntzarekin. •



Aitor Atxegari abesti bat egin eta eskaini zion Jon Lasari.



Aitzol eta Aroak, Jonen seme-alabek, Mikel Laboaren abestia eskaini zioten.



Banaketa berezia egin zuten Gregoretak eta Feldespakok.



Ederki aritu ziren dantzak bertaratutakoak, batzuei dantzaldia motza egin bazitzairen ere.



Jangela osoa Bero-bero dantzaten jarri zuten klownek.